



Getxo
bizi ezazu



Adikzioen prebentzioa

2019ko memoria

Aurkibidea

1. Prebentzio zerbitzuaren helburu orokorrak eta espezifikoak	3
2. Alderdi ekonomikoak	5
3. Prebentzioa hezkuntza esparruan	7
3.1. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako esku hartzea	9
3.1.1. Laguntza baliabideak	9
3.2. Bigarren hezkuntzako eta batxilergoko esku hartzea	11
3.2.1. Laguntza baliabideak	11
4. Prebentzioaren inguruko tailerrak ikasgelan	13
4.1. Sarean tailerrak	14
4.2. Droga-mendekotasuna prebenitzeko tailerrak	15
4.3. “Alkoholaren arriskua” tailerrak	16
4.4. Apustuen eta online jokoen inguruko tailerrak	17
4.5. “Drogen arriskua” tailerrak	17
5. Prebentzioa familia esparruan	18
5.1. Familien eskola	19
5.2. Seme-alabak aldizkaria	19
6. Prebentzioa komunitate esparruan	20
6.1. Arriskuak murriztea Getxoko jaietan	21
6.2. “Prebentziorako txokoa” Facebooka	21
7. Instituzioen arteko eta diziplina anitzeko koordinazioa	22

1.

Prebentzio zerbitzuaren helburu orokorrak eta espezifikoak



Helburu orokorrak

Adikziozko jardunbideen aurkako babes faktoreak indartzea, bizitza estilo osasungarriak sustatuz eskolako esparruko hezkuntza prozesuan zehar, arriskuzko jarrerak murrizteko asmoz.

Sustatzea gurasoek prestakuntza egokia jaso dezaten osasunaren inguruko beren gaitasun pertsonalak eta balio positiboak garatzeko, errazteko beren seme-alabak hezi ditzaten bizitza estilo osasuntsuei jarraikiz, adikzio jardunbideen kudeaketari dagokionez.

Komunitate esparruko esku hartzeak areagotzea eta dibertsifikatzea, horiek moldatuz hartzaile kolektibo bakoitzera (erretzaileak, herri-tarrak orokorrean, hezkuntzako kolektiboa eta abar) eta jarduketa esparru bakoitzera (orokorra, hautazkoa eta abar).

Helburu espezifikoak

Ikasleen artean sustatzea erabaki asertiboak hartzera bideratutako abileziak lortzea, esaterako, harreman sozialetako abileziak, pentsamendu kritikoak eta aisiaren, denbora librearen eta osasunaren inguruko jarrera positiboak.

Era berean, sustatzea gaitasun pertsonal positiboak lortzea, norberaren kontzeptuari eta inplutsibotasunaren, emozioen eta balioen kontrolari buruzkoak.

Ikasleei ematea adikzioen (substantzienak edo substantziarik gabekoak) eta haien eraginen inguruan hausnartzeko eta kontrastatzeko gune bat, ikaste-txearen esparruan bertan.

Gurasoak sentsibilizatzea beraiek prebentziozko eta hezkuntzako eragile gisa duten zereginaren inguruan, Gurasoen Eskola programan parte hartu dezaten sustatuz.

Programa bat diseinatzea eta abiaraztea, aukera emango diena prestakuntza lortzeko beren hezitzaile lanak modu egokian egiteko, Gurasoen Eskola antolatuz eta garatuz.

Argitalpen bat diseinatzea, sortzea eta zabaltzea, Gurasoen Eskolaren alderdiak osatuko dituen, eta ezagutaraziko dituen udalerririk ematen dituen baliabide sozialak eta hezkuntzakoak.

Erretzeari utzi nahi diotenen profesional baten laguntza izatea, etengabeko euspen eta errefortzu jarraipen bat egiteko, beren helburua lor dezaten.

Hori nahi duten pertsonak borondatez kontrolatu ahal izatea beren alkohol maila jai eta aisia inguruetan, beren arrisku maila murrizteko.

Hezkuntza kolektiboak gune bat izatea, prestakuntzako eta hausnarketako, emozioen kudeaketa lantzeko garrantziaren inguruan sentsibilizatzeke.

Kolektibo eta pertsona interesatuek sare sozial bat izatea (Facebook) adikzioen prebentzioaren alorreko informazioa eta Getxoko udalerririk horretarako dituen baliabideak partekatzeko.

2.

Alderdi ekonomikoak



2. Alderdi ekonomikoak

Adikzioen prebentzio zerbitzua finantzatzen da Getxoko Udaleko ohiko aurrekontuaren bitartez.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen programaren bidez araututako laguntza ekonomikoekin osatzen da.

Eusko Jaurlaritzak **programetarako** emandako dirulaguntzak


Dirulaguntzak	2015	2016	2017	2018	2019
Eskatutakoak	29.312	22.133	27.600	26.619	29.625
Emandakoak	13.003	12.591	13.595	13.310	15.702
Emandako %	44	57	49	50	53

Eusko Jaurlaritzak **talde teknikorako** emandako dirulaguntzak

Dirulaguntzak	2015	2016	2017	2018	2019
Eskatutakoak	114.622	117.902	114.622	115.756	118.582,4
Emandakoak	43.224	44.176	45.944	45.488	47.651
Emandako %	37	37	40	39	40

3.

Prebentzioa hezkuntza esparruan



3. Prebentzioa hezkuntza esparruan

1998tik Etorkintza fundazioarekin lan egin da, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei emandako aholkularitza eta laguntza zerbitzuak optimizatzeko, osasunerako eta adikzioen prebentziorako programak diseinatu eta garatu ditzaten.

Proiektua hezurmamitzen da aholkularitza teknikoan; material didaktikoa diseinatzean, egokitzean, sortzean eta banatzean; eta ikasleak prestatzean.

Esku hartzeak laneko bi ardatz ezberdintzen ditu: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapa (4 urtetik 12 urtera), eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoaren etapa (12 urtetik 16 urtera), bakoitzaren bilakaera prozesuen arabera.

Komunitateko prebentzio metodologia tradizionala gehiago oinarritzen zen irakasleak prestatzean/gaitzean, haiek izan zitezten jakintza/jarrera horiek helarazten zituena, hezkuntza errealitatea hobeto ezagutzen zuelako. Egun, prebentzio lantegiek erantzuten diote irakaslea gai espezifikoean ordeztuko duten teknikarien eskari geroz eta handiagoari. Horrenbestez, geroz eta handiagoa da ikasgelako esku hartze kopurua eta horien edukien aniztasuna.

Memoria honek hezkuntzaren esparruan 2018-2019an egindako esku hartzeari buruzko datuak biltzen ditu gehienbat, eta gai batzuen inguruan 2019-2020ko ikasturteari buruzko informazioa aurreratzen du.



3.1. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako esku hartzea

2018-2019 ikasturtean ikastetxe guztietan (13) egin da esku hartzea, hau da, **180 ikasgelatan**, Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, dosierren bidez, irakasleen aholkularitzaren bidez, sare sozialen lantegien bidez, ipuin-kontalarien bidez, txotxongiloen bidez eta abarren bidez.

Ikasleei dagokienez, azken ikasturte honetan, **3.676 ikaslerekin** lan egin da. Horietatik, 2.583 Lehen Hezkuntzakoak dira, eta 1.093 Haur Hezkuntzakoak. Parte hartze hori irakasleen inplikazioaren ondorioz gertatu da batik bat, emozioen eta balioen hezkuntzan lan egiten dutelako ikasgeletan. Horrez gain, zenbait gaitasun pertsonal positibo bereganatu dituzte, adikzioekin zerikusia duten arrisku-portaerak mugatzeko helburuarekin.



Maila	Ikasgela	Ikasle
2014-2015	150	3.040
2015-2016	153	2.653
2016-2017	195	2.829
2017-2018	200	3.750
2018-2019	180	3.676

Etapan honetan, programaren garapena eta bilakaera oso positiboak dira, eta kopurua eskolako eroldaren aldakortasunaren mende dago soilik.

3.1.1. Laguntza baliabideak

Disenuzko dosierrak

Laguntza baliabideak dira, gai puntualak lantzeko ikastetxeen eskaerapean egindakoak, hautemandako beharren arabera. Ad hoc egin dira, laneko oinarritzko dokumentu gisa, ikasgela eta ikasturte bakoitzaren beharretara egokituta.

Honako hauek dira ikasturte honetan **gehien eskatu diren gaiak**:

- » *Mugikorraren erabilera. Familientzako kontratuak.*
- » *Ereduaren balioari buruzko bideoak familientzat.*
- » *Nola landu galera eta dolua.*

Aholkularitza

Sentsibilizatzeko, planifikatzeko eta jarraipena egiteko bilerak dira, ikastetxe bakoitzeko erreferentziatzeko pertsonekin egiten direnak. Haien helburua da

abiapuntua aztertzea, ikasturterako aurreikusitako esku hartzea diseinatzea eta Adikzio Unitateak eskainitako baliabideak aurkeztea.

2018-2019 ikasturtean **aurrez aurreko 37 koordinazio** egin dira ikastetxeetako arduradunekin, eta horietan **21 pertsonak** hartu dute parte.

Nabarmentzekoa da aurrez aurrekoak ez diren koordinazioak (Whatsapp bidez, mezu elektronikoen bidez edo telefono bidez) geroz eta ohikoagoak direla eta ez direla zenbatzen.

Lagunekin baratzean

“Lagunekin baratzean” programa 5-9 urte arteko ikasleei bideratuta dago (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa). Haren helburua da haurren arteko harremanak garatzea, barazki talde bateko ohiko egoerak abiapuntu hartuta.

Ipuin liburu bat, hezitzaileentzako gida didaktiko bat eta CD bat doaz programarekin, baita lamina multzo bat ere.

Antzerki jarduera ere egin da (txotxongiloak), programa hartzaileei modu ludikoan inguratzeko.

2019-2020 ikasturtean, **Getxoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek (13) hartu dute parte, eta guztira 1.085 pertsonarengana iritsi da.**

Emoki tailerrak “sentiktuz programa”

Erkidegoan egin den prebentzio unibertsaleko programa da, eta helburua hau da: harreman fisiko zein digitaleko inguruan ongizate osoa sustatzea, emozioak kudeatuz, harreman afektibo eta sexual osasungarriak garatuz, eta teknologia berriek ikasleengan duten eragina aztertuz.

2019-2020 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako **12 ikastetxetan** garatu da, 5. mailan nagusiki, eta **23 ikasgelak** parte hartu dute; **216 neskak eta 222 mutilak (438 parte-hartzaile).**

Apika ipuin-kontalaria “ni neu, zu zeu”

Ipuinen ahozko narrazioa da, eta horren bitartez asertibitatea lantzen da, adikzioak prebenitzeko baliabide gisa.

Ipuin hauetan banaka erabakitzeko garrantzia lantzen da, denok desberdinak garela eta gure izate hutsagatik baliotsuak garela ulertuz. Besteengan eta geure buruarengan daukagun eragina. Elkar errespetatu behar dugula eta nork bere burua errespetarazi behar duela ulertzeko ipuinak.

Guztira, **18 saio** egin dira Getxoko **13 ikastetxetako** Lehen Hezkuntzako 3. mailan, eta **440 ikaslek** hartu dute parte.

3.2. Bigarren hezkuntzako eta batxilergoko esku hartzea

Udalerriko bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko guztiek parte hartzen dute adikzioak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko programetan, lan, konpromiso eta inplikazio maila ezberdinekin. Beraz, udalerriko bigarren hezkuntzako 8 ikastetxerekin egiten da lan: 5 itunpeko, 2 publiko eta Lanbide Heziketako bat.

Irakasleei dagokienez, 2018-2019 ikasturtean **107 irakaslerekin** lan egin da.

Ikasleei dagokienez, ikasturte honetan **2.635 ikaslerekin** egin da lan, guztira. Horietako 1.730 Bigarren Hezkuntzakoak ziren, eta 905, Batxilergokoak edo heziketa-zikloetakoak.

Etapa honetan ere oso positiboa izan da bai programaren garapena, bai haren bilakaera, eta kasu honetan parte hartzea eskolako eroldaren aldakortasunaren mende egon ez ezik, Batxilergoan eskainitako lantegi berrien eta Fadura LHN hainbat programetan egondako parte hartzearen mende ere egon da.



Maila	Ikasgela	Ikasle
2014-2015	83	1.840
2015-2016	81	1.812
2016-2017	99	2.225
2017-2018	110	2.469
2018-2019	107	2.635

3.2.1. Laguntza baliabideak

Aholkularitza

Sentsibilizatzeko, planifikatzeko eta jarraipena egiteko bilerak dira, ikastetxe bakoitzeko erreferentziako pertsonekin egiten direnak. Haien helburua da abiapuntua aztertzea, ikasturterako aurreikusitako esku hartzea diseinatzea eta Adikzio Unitateak eskainitako baliabideak aurkeztea.

Ikasturte honetan **aurrez aurreko 29 koordinazio** egin dira ikastetxeetako arduradunekin, eta horietan **16 pertsonak** hartu dute parte.

Nabarmentzekoa da aurrez aurrekoak ez diren koordinazioak (Whatsapp bidez, mezu elektronikoen bidez eta telefono bidez) geroz eta ohikoagoak direla eta ez direla zenbatzen.

Disenuzko dosierak

Laguntza baliabideak dira, gai puntualak lantzeko ikastetxeen eskaerapean egindakoak, hautemandako beharren arabera. Ad hoc egingo dira, laneko oinarriko dokumentu gisa, ikasgela eta ikasturte bakoitzaren beharretara egokituta.

Honako hauek dira ikasturte honetan **gehien eskatu diren gaiak**:

- » Cyberbullying, *grooming* eta *sexting*.
- » *Jokoaren apustu*en adikzioa. *Adierazleak*.
- » *Kanabisa*: informazioa eta arriskuak.

“Adikzio aurretik” (DBHko 3. eta 4. mailak, eta Batxilergoa)

Zinema programa bat da, adikzioen prebentzio unibertsalerakoa. “Adikzio aurretik” programan erabilitako material didaktikoen oinarria da hiru film labur motibatzaile ikustea ikasgelan, zineman ikusteko hiru film luzeren hasiera gisa balio dutenak. “Frenatzeko arrazoiak” programarekin osatzen dira; hura osorik online egiten da.

2019-2020 ikasturteko programazioak honako hiru film labur hauek ditu ikasgelan ikusteko: *500 palabras*, *Gusanos de seda* nahiz *Le bleu blanc rouge de mes cheveux*, eta zinemako hiru proiektzio hauek: *No tengas miedo*, *El arte de pasar de todo* eta *Larga vida y prosperidad*. Ikasturte honetako online programaren gai nagusia sare sozialak modu arduratsuan erabiltzea da.

Aurrez aurreko parte hartzeari dagokionez, **18 gelatako 397 ikaslek** hartu dute parte; “Frenatzeko arrazoiak” online programan, berriz, **15 gelatako 772 pertsonak** hartu dute parte.



4.

Prebentzioaren inguruko tailerrak ikasgelan



4. Prebentzioaren inguruko tailerrak ikasgelan

Egun, prebentzio lantegiek erantzuten diote irakaslea gai espezifikoean ordeztuko duten teknikarien eskari geroz eta handiagoari.

Horren ondorioz, aldaketa kualitatibo bat egon da komunitateko esku hartze tradizionalaren metodologian. Izan ere, lehen oinarritzen zen irakaslea prestatzean eta gaitzean, hura izan zedin jakintza eta jardunbide horiek helarazten zituena, hezkuntza errealtatea hobeto ezagutzen zuelako.

Horrenbestez, geroz eta esku hartze gehiago egiten dira ikasgelan, eta haien edukiek geroz eta dibertsitate handiagoa dute. Hain da hori horrela, ezen honako modalitate hauek zerrendatu baitaitezke, beren kolektibo hartzailearekin:

- Sare sozialen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera egokiaren inguruko SAREAN tailerrak (DBHko 1. maila).
- Droga-mendekotasuna prebenitzeko tailerrak (DBHko 2. eta 3. mailak).
- "Alkoholaren arriskua" tailerrak (DBHko 4. maila).
- Apustuen eta online jokoen inguruko tailerrak (Batxilergoko 1. maila).
- "Drogen arriskua" tailerrak (Lanbide Heziketa).

4.1. Sarean tailerrak

Egungo gizartean, eta bereziki nerabezeroan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT) zeregin determinatzaile hartu dute prestakuntzan, hezkuntzan eta berdinekin harremanak sortzeko moduan. IKTen erabilera osasungarri baterako hezteko, bereziki sare sozialena, tailer horiek planteatu dira, **DBHko 1. mailako ikasleei zuzendutakoak**, baina salbuespen gisa beste maila batzuetan ere egiten dira, ikastetxeak hala eskatuz gero.

Helburu horiek honela hezurmamitzen dira:

- Gizarte-sareen, haien ezaugarrien eta eragin positibo nahiz negatiboen inguruko gogoeta eta kontraste eremu bat ezartzea.
- Baliabideak ematea, gizarte-sareen erabilera egoki baterako.

Tailerrak maila horietan planteatu dira, adin horretako ikasle gehienak sartzan direlako Whatsappera, Snapchatera, Instagramera, Tik tok eta abarrrera, eta sarri ezjakintasun handiz erabiltzen dutelako, eta era guztietako arriskuak hartzen dituztelako.

SAREAN lantegien helburu nagusia da **cyberbullyingari** aurre egitea, nabarmenduz zein garrantzi duten "ikusleek" jazarpen kasu posible bat dagoenean. Gehienbat, hausnarketa tailerrak dira, eta bertan hausnartzen dute, bai berdinekin harremanak sortzeko moduaren inguruan, bai sare sozialetan sortzen diren harreman moten inguruan.

2018-2019 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako 4 ikastetxetan egin dira honako lantegi hauek:

Ikastetxea	Ikasgelak	Ikasleak	AMO*
Azkorri	2	59	8,96
San Nikolas	3	71	8,97
Julio Caro Baroja	4	94	9,17
Aixerrota	4	90	8,99
GUZTIRA	13	314	9,02

*AMO. Asebetetze Maila Orokorra

4.2. Droga-mendekotasuna prebenitzeko tailerrak

IKTei buruzko lantegien bilakaera Bigarren Hezkuntzan

Ikasturtea	Ikasgelak	Ikasleak	AMO*
2013-2014	16	342	9,10
2014-2015	12	278	9,17
2015-2016	11	281	9,25
2016-2017	14	295	8,96
2017-2018	10	228	9,11
2018-2019	13	314	9,02

*AMO. Asebetetze Maila Orokorra

2018-2019 ikasturtean, droga-mendekotasunari buruzko informazio- eta prebentzio-tailerrak egin dira ikasleentzat. Prebentzio Unitateak eskaini ditu Getxoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan (8); guztira **24 ikasgelatan** egin da esku hartzea, eta **489 parte-hartzaile** egon dira.

Lantegietan planteatu diren helburuak honako hauek izan dira:

- Eraginen eta arriskuen inguruko informazioa ematea ikuspegi objektibo eta ez moralizatzaille batetik.
- Gehiegizko kontsumoetatik eratorritako arriskuak murriztea.
- Kontsumoen, kontsumo motei, eraginei eta arriskuei buruz hausnarraztea.
- Mitoak eta estereotipoak deskodetzen saiatzea.
- Drogen inguruko zalantzak eta kezak argitzea.

Ikastetxea	Ikasgelak	Ikasleak	AMO*
Azkorri	2	57	9,49
Divino Pastor	1	21	9,40
Europa	2	52	9,32
Trinitarias	2	28	9,30
San Nikolas	3	66	9,49
Aixerrota	5	98	9,01
Julio Caro Baroja	4	90	9,22
Fadura	5	77	9,29
GUZTIRA	24	489	9,31

*AMO. Asebetetze Maila Orokorra

Nabarmendu behar da ikasturte honetan, ikastetxeek hala eskatuta, droga-mendekotasuna prebenitzeko lantegien iraupena saio batekoa izatetik bi saiokoa izatera igaro dela.

Droga-mendekotasuna prebenitzeko lantegien bilakaera Bigarren Hezkuntzan

Ikasturtea	Ikasgelak	Ikasleak	AMO*
2013-2014	29	549	9,14
2014-2015	17	343	9,28
2015-2016	20	398	9,38
2016-2017	14	296	9,28
2017-2018	23	469	9,23
2018-2019	24	489	9,31

*AMO. Asebetetze Maila Orokorra

4.3. “Alkoholaren Arriskua” tailerrak

Gazteak arrisku talde bat dira alkohol kontsumoari lotutako istripuei dagokienez, beste faktore batzuek ere bat egiten dutelako: gauak, taldeko presioak, beste droga batzuek, lokalen masifikazioak eta arriskuaren pertzepzio baxuak, adibidez. Lantegien helburua da kontzientzia sortzea kontsumoari lotutako arriskuen inguruan, kalteen eta arriskuen inguruko informazioa ematea eta norberaren zaintzako jardunbideak indartzea kontsumorik badago.

Hau izan da Ortzadarrek DBHko 4. mailan emandako “Alkoholaren arriskua” lantegien parte hartzea:

Ikastetxea	Ikasgelak	Parte-hartzaileak
Julio Caro Baroja	4	66
San Nikolas	3	74
Divino Pastor	1	20
Azkorri	2	51
Trinitarias	1	13
Europa	2	49
Aixerrota	6	116
GUZTIRA	19	389

Parte hartzen duten ikastetxe guztiek oso positiboki balioetsi dute programa. Ikasleen ebaluazio inkesten arabera, interesgarritzat jotzen dituzte lantutako gaiak eta erabilitako metodologia, baita irakasleek gaia garatzeko modua. Ortzadarrek ere ikastetxeek proiektua garatzeko emandako harrearen, izandako jarreraren eta interesaren oso balioespen ona egin du.

4.4. Apustuen eta *online* jokoen inguruko tailerrak

Ausazko jokoen eta apustuen erabilera arduratsua sustatzeko helburuarekin, haien erabilera dramatizatu eta laidoztatu gabe. 2018-2019 ikasurtean, **1. mailako Batxilergorako** zuzendutako tailerrak garatu dira **Aixerrotan**. 8 saio izan dira, eta Jokover bideo-jokoan oinarrituz helburu hauek ezarri dira:

- Gazteak eta nerabeak ausazko jokoen eta apustuen erabileraren, esperotako sarien eta izan ditzaketen arriskuen aurrean sentikor agertzea.
- Ausazko jokoen eta apustuen erabilerarekin zerikusia duten arriskuak murriztea.
- Horiei buruzko informazio objektibo eta ez-moralizantea igortzea.
- Norberak dituen gezurrezko sinesmenekin apurtzea.
- Sentsibilizatzea eta alderdi positiboen (sariak) eta negatiboen (lotutako arrisku-portaerak) arteko hautematea egokitzea.

Zortzi prestakuntza-saio horietan **88 ikaslek** parte hartu dute.

Batxilergoko ikasgeletara sartzeari zaila denez eta kontuan hartuta adin horrekin ikasle gehienek dagoeneko apustu egin dutela eta/edo *online* jokoe-tan aritu direla, lan proposamena DBHko 4. mailarako zuzenduko da

4.5. “Drogen Arriskua” tailerrak

Ortzadarrek “Drogen arriskua” tailerrak eman ditu kontsumorik gehieneko ikasgeletan, Faturako erdi-mailako heziketa-zikloetako lehen mailetan. Lantegi horien helburua substantziak hartzerako orduan arriskuak murriztea eta kontsumo hori makinaren erabilerarekin lotzea izan da.

Guztira **Faturako** erdi-mailako heziketa-zikloetako **6 ikasgeletako 99 gaztek** parte hartu dute.

5.

Prebentzioa familia esparruan



5. Prebentzioa familia esparruan

5.1. Familien eskola

Familien Eskola programa (lehen Gurasoen Eskola izenekoa) 1994-1995 ikasturtetik garatzen da Getxo udalerrian.

2019. urtean, 8 egoitzatako **201 pertsonak** hartu dute parte.

Hauek izan dira jorratutako gaiak:

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (euskaraz)
- Eskola-jazarpena.
- Adimen emozionalean eta adimen emozionalarekin heziz.
- Teknologia digitalekin heziz.
- Droga-mendekotasunaren prebentzioa.
- Berdintasunean eta indarkeria matxistaren aurka heziz.
- Pantailen aurrean jartzea txikitatik.

Gai horiek guztiak jorratu dira **39 saiotan**, eta **170 emakumek eta 31 gizonek** hartu dute parte, udalerriko ikastetxeetako umeen senideek.

➤ <https://www.getxo.eus/es/prevencion/>

5.2. Seme-Alabak aldizkaria

Seme-alabak argitalpenaren asmoa da osatzea Gurasoen Eskolako prestakuntza jarduerak, gurasoak inguratuta beren seme-alaben inguruko hezkuntza gaiekin zerikusia duten prestakuntza alderdietara.

Argitalpena, Getxoberrirekin batera aldizka argitaratzen dena, dibulga-ziokoa da, eta urtean bi ale argitaratzen dira, eskola komunitateko une gakoekin bat.

Ale bakoitzak ohiko atalak ditu: Nire egunkaria, orientabideak, gomendatutako liburua eta baliabide interesgarriak udalerrian, euskaraz eta gaztelaniaz.

2019. urtean honako hauek argitaratu dira:

- » 42. zk.: *“Enpatia, gainditu gabeko irakasgaia”*
- » 43. zk.: *“Irabazteko lehiatu?”*

➤ <https://www.getxo.eus/es/servicios/publicaciones/seme-alabak>

6.

Prebentzioa komunitate esparruan



6. Prebentzioa komunitate esparruan

6.1. Arriskuak murriztea Getxoko jaietan

Proiektu hau datza borondatezko alkohol kontrolak jartzean udalerriko hainbat festetan.

2019. urtean borondatezko kontrol bat garatu da Algortako jaietan, uztailaren 30ean.

Guztira **233 alkohol-proba** egin dira (164 gizon eta 69 emakume): 100 pertsonak **positibo** eman zuten; gehienak gizonezkoak. Standera **12 pertsona** inguratu ziren, informazio eske.

Joan-etorriei dagokienez, %13,73ek gidatzeko asmoa zuten, baina horietako %12,5ek gidatzeko baimendutako tasa gainditu zuten.

6.2. “Prebentziorako Txokoa” Facebooka

2012an “Prebentziorako txokoa” Facebookeko orrialdea sortu zen, elkarri eragiteko eta komunitatearen dinamizazioa indartzeko gune komunikatibo bat sortzeko helburuarekin, baita Getxoko udalerrian eta bertatik kanpo prebentzioaren esparruan eskaintzen diren baliabideak ezagutzeko ere.

2019an **28 argitalpen** partekatu dira, eta **3.319 laguni** iritsi zaizkie.

Honako lau argitalpen hauek izan dute eragin handiena:

- “*Menores y apuestas*” (Adingabeak eta apustuak) argitalpena **503 laguni iritsi** zaio.
- “*Alcohol, drogas, juego... las adicciones de los menores*” (Alkohola, drogak, jokua... adingabeen adikzioak) argitalpena **404 laguni iritsi** zaio.
- “*Si no se aprende a mirar socialmente a la adolescencia siempre la enfocaremos desde el conflicto*” (Nerabezaroan sozialki arreta jartzen ez badugu, gatazkaren ikuspegitik enfokatuko dugu beti) argitalpena **461 laguni iritsi** zaio.

➤ <https://www.facebook.com/Prebentziorako-txokoa-448924405138751/>

7.

Instituzioen arteko eta diziplina anitzeko koordinazioa



7. Instituzioen arteko eta diziiplina anitzeko koordinazioa

Instantzia eta/edo eragile erantzukideen arteko koordinazioa ezinbesteko tresna da prebentzio alorreko esku hartzeak modu efizientean eta efikaziaz kudeatzeko.

Getxoko Adikzioak Prebenitzeko unitateak koordinazio lan jariakorra du honako hauekin:

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, erkidegoko taldeen jarraibideen arduraduna.
- Prebentzioko udal taldeak, kezkak partekatuz eta programen eta proiektuen esku hartze elementu koherenteak adostuz – Uribeko Sustapen eta Prebentzio Taldea.
- Osasun Saila eta Osakidetza, tabakismoa murrizteari, elikadura osasungarriari, ariketa fisikoari eta abarri dagokionez.
- Lehenak zerbitzua – Nahasmendu psikotikoko lehen gertakarietarako osasun mentaleko sarea.
- Hezkuntza Saila, ekimen guztiak aplikatzeko ikastetxe publiko eta pribatuen bitartez, in situ kontaktuaren bidez.
- Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak: Gazteria, Berdintasuna, Hezkuntzako eta Gizarteko Esku Hartzea, etab.
- Hirugarren sektoreko entitate ugari eta prebentzio alorreko zerbitzuak eta baliabideak ematen dituzten enpresa ugari.

Hori dena adikzioen fenomenoaren konplexutasunari erantzunez eta erantzunkidetasun printzipioari jarraikiz egiten da.



Getxo
bizi ezazu